

"HARKI"RIK EZ

Irakurleak ere entzuna duke jadanik azkeneko manifestazioetan: "*indár erré-presl-boák, á-púr-tú*". Edozein egunetan, edozein lekutan, taldeak pilatu eta lelo bera errepikatzen da.

Eta leloaren oihartzunak, dirudie-nez, Madrilleraino heldu bide dira. Eta "soluzioa" ere ba bide dute; eta aipatzen hasia da gure artean.

Zein ote da, bada, gure jendeen asalduek, gorrotoak eta herrak ematu-ko omen lituzkeen mirari hori? Hauxe, omen: orain arteko politziaren ordez, gure kale eta enparantza nahasietara "*hertzaina*" ateratzea, euskal (edo euzko bederen) politzia bidaltzea; gri-sen eta berdeen ordez, "*mikelete*"z edo "*miñonez*" jantzitako zaindariak agetzea. Eta kitto: indar "*errepresibo*"-rik ez, itxura denez.

Gero eta maizago eta lotsagabekia-go erabiltzen da jokabide berbera gu loakartzeko. Diputazioak, esate bate-rako, oraindik frankismoaren garaiko gizon *berberak* osaturik ere, bapatean "*foral*" bihurtu zaizkigu... Mirariaren harrigarria!

Hiru probintzi "*vascongado*"etako "*Consejo*" delakoa, era berean, "*vas-co*" bataiatu dute; eta euskaldundurik eta abertzaleturik gertatu bide da kol-pez. Mirakuilu hutsez, berriz ere; zer esanik ez!

Gauza bera unibertitateaz: bere fakultateetako irakasleetan beretan ere lehengo bertsua izanagatik ere (eta Nafarroa gabe), "*Vasco*" bataiatu dute; eta kitto. Ba omen diagu geure unibertsitea...

Ez gara Euskal Herrian bizi, mutilak, Fatima betean baizik!

Guk, zozook, geure xerukerian, bes-terik behar zela uste genuen. Gure diputazioak "*foral*" deitu ahal izateko, FORUAREN ARABERAKO LEGETA-SUNAREN ZERBITZUTAN jokatu behar zutela, esate baterako... Ez, ordea! "*Foral*" hitza etxaurreetako atalburuan erastea aski zen! Eta gu ez ginen orain arte konturatu. Errazago-rik...!

Gauza bera PSOE delakoa euskal-duntzeko: "*de Euzkadi*" hitza erantsi, eta horra hor gure herriak behar zuen alderdi sozialista eta euskalduna. Sekula santan euskaltasunaz arduratu ez diren horietzek, behingoz "*abertzale*" (sic) bihurturik.

Elebitasunaz ere, gauza bera: "*bilin-güismo*" hitza esan noizean behin, erdaraz barra barra segi, eta akabo: diglosiarik ez Euskal Herrian; eta hizkuntz-arazoak ere, mirakuiluz, bapatean konponduta.

Ez dira hauek txorakeriak edo gehiegikeriak. Ez. "*Semantika*" kontua omen da euskal arazoa: hitz hauxe erabili du buruzagi horietako batek. Eta, horrela, gaur "*Gora Euskadi Aska-tatuta*" esan dezakete denek, lasai, baita etsairik nabarmenenek ere ("*te-nemos otro concepto del aberchalis-mo, puro problema de semántica*"...). Bapo! Ederki ari gaituk!

Eta orain, hori guztia ikusita, bide beretik konpondu nahi dute manifes-tazioen eta kale-zanpaketen arazoa.

Jaen, Murcia eta Guadalajara-ko "*grisak*" hemendik aterako bide dituz-te; eta, beroien truke, txapelaz eta mendigoizale galtzaz jantzirik, Zizurkil, Obanos eta Errigoiti-ko "*urdinak*" jarriko bide dizkigute. Egurra, horrela, geureek emango digute, galanki; bai-na... euzkotarki ere bai. Eta, noski, horretara izatera, indar "*errepresibo*"-rik ez gurean.

Zeren-eta noia izan ote dakiok zeanpatzaile inori Beasain-go morrosko sendoa edo lurtzungo sudurluzea? "*Ertzaña*" bataiatuko bide dituzte delakook ('H' gabe hobe, jakina). Eta istilu-iturri bat gutxiago...

Zanpatzaile, ordea, ez dira, izan, gri-sak berak; manifestari abertzaleen kontra joan erazten dituen politik-egoera eta SISTEMA baizik.

Fazismoak emandako egitura hein batez ongi atxikitzen duen sistema horren zerbitzutan eraiki litekeen "*ert-zaña*" (diputazioak eta udalak lekukol), ez litzateke gurea izango; gure kontra-koa baizik.

Euskal legetasunaren zerbitzutan ez legokeen "*ertzaña*" (eta gaur ez dago hemen euskal legetasunik, eta ez horrelakorik ezer), "*harki*" erakundea litzateke; ez Euskal Herriaren zaindari erakundea. "*Harki*" diot; Arjelian frant-sesek indarrean onar-erazitako legeta-sun haren zerbitzutan hautatu ziren "*bons algériens*" haien politzia, HARKI-multzoa izan zen bezalatsu.

Ez gara gu ameslariak. Gure herrian, ba dakigu, beste non-nahi bezala, HERTZAINZA ere beharko dugu. Baina, otoi: hertzaintza horrek, gure izango bada, *gure legetasuna* behar du gerizatu eta zaindu; eta ez, alderantziz, euskal legetasun horren *alde* borrokan kalera irteten diren ABERTZALEAK zafratu eta txikitu.

Ondo jaiok ginatke!

Txillardegi